



**ZEANURIKO MUDAL-MUGARTEKO ELEIZONDO AUZOAN SANEAMENDU-OBRAK
KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA ESPEZIFIKOEN AGIRIAREN KARATULA.
ESPEDIENTE-ZK.: 3161**

Erregulazio harmonizatuko kontratua	☐ BAI ☒ EZ
Espedientea izapidetzea	☒ Ohikoa, ☐ Urgentea, ☐ Larrialdia, ☐ Aurreratua
Mota	☒ Irekia ☐ Ireki sinplifikatua (SPKLren 159.1 art.) ☐ Ireki super sinplifikatua (SPKLren 159.6 art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA

1.- Botere adjudikatzailea:	Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia/ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☒ Zuzendaritza Batzordea ☒ Presidentea ☐ Gerentea
3.- Kontratuaren arduraduna:	David Díez López
4.- Kontratazio Zuzendariordetzaren harremanetarako datuak:	contratacion@consorciodeaguas.eus Kontsulta administratiboak/teknikoak: Tel.: 94 4873100
5.- Kontratatzailearen profila:	https://www.consorciodeaguas.eus/eu/ https://www.contratacion.euskadi.eus/hasiera/

B.- KONTRATUAREN XEDEA

1.- Kontratuaren xedea: SANEAMENDU-OBRAK ZEANURIKO MUDAL-MUGARTEKO ELEIZONDO AUZOAN
2.- Zer beharri erantzun behar zaien: Obra-kontratuaren xedea auzoko etxebizitzaren saneamendua ebaztea da; gaur egun lurpeko euri-uren galeria batera isurtzen dituzte urak gehienbat (honenbestez, kolektore unitario gisa funtzionatzen du galeriak).
3.- Loteka banatzea: ☐ Bai ☒ Ez Loteka ez banatzearen justifikazioa: Inguru berean (Eleizondo auzoan) kokatutako obrak garrantzi txikikoak izatea (350 ml baino gutxiago eroanbideetan, obrarako sarbide berak partekatutako direla eta, laburbilduz, bertakoei eragiten dietela). Hori dela eta, kontratu hau loteka banatzea ez da aproposa. Gainera, kontratu osoa loteka banatu gabe exekutatzeak ingurumen-kontrolerako, hondakin-kudeaketarako eta eta obretan segurtasun- eta osasun-arauen aplikatzeko atazak egokiago kudeatzea dakar berekin.
4.- CPV: CPV kodea: 45231300-8- 45232410-9 - 45232440-8 Deskribapena: Uretarako eta hondakin-uretarako hodiak eraikitze lanak - Saneamendu-obrak - Hondakin-uretarako hodiak eraikitze lanak
5.- Aldaeren edo alternatiben onargarritasuna: ☐ BAI ☒ EZ
6.- Izaera juridikoa ☒ Administratibo ☐ Pribatua



C.- KONTRATUAREN PREZIOA	
1.- Lizitazio-aurrekontua (BEZa gabe)	BERREHUN ETA HIRUROGEITA HAMABOST MILA BOSTEHUN ETA HIRU EURO ETA HIRUROGEITA HEMERETZI ZENTIMO (275.503,79)
2.- Kontratuaren balio zenbatetsia: 275.503,79 euro Loteak: ☐ BAI ☒ EZ	
3.- Prezioa zehazteko sistema: ☐ Oroharreko prezioa ☒ Prezio unitarioak	
4.- Urterokoak eta aurrekontu-kontsignazioa: Kontratuaren aurrekontu-urterokoak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa: 2024. URTEA, PARTIDA: DEPO 32 16942/6500 ZENBATEKOA: 213.766,20 EURO (BEZ gabe) 258.657,10 EURO (BEZa barne) 2025. URTEA, PARTIDA: DEPO 32 16942/6500 ZENBATEKOA: 61.737,60 EURO (BEZ gabe) 74.702,49 EURO (BEZa barne)	
5.- Prezioen berrikuspena: ☐ BAI ☒ EZ	
6.- Finantzaketa kanpoko funtsekin: ☐ BAI ☒ EZ	
7.- Ordaintzeko modua: Partzuergoaren organo eskudunak onetsitako hileko ziurtagiri bidez.	
8.- Konturako ordainketak: Ez	

D.- KONTRATUAREN EPEA
1.- Iraupen osoa SEI (6) HILABETE
2.- Epe partzialak ☐ BAI ☒ EZ
3.- Luzapena ☐ BAI ☒ EZ
4.- Bermealdia: Lehiatzaileak eskainitakoa izango da obren bermealdia, baina inoiz ez URTEBETE (01) baino laburragoa.
5.- Kontratua exekutatzeko tokia: Zeanuriko udal-mugartea.
6.- Lanak zatika jaso daitezke ☐ BAI ☒ EZ

E.- BERMEAK	
☒ Behin betiko bermea: % 5	Zenbatekoa: Adjudikazioa
☐ Berme osagarria:	Zenbatekoa:



F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA

Urteko negozio-bolumenak (aintzat hartuta amaitutako azken hiru urteotan negozio-bolumen handiena izan duen urtea) kontratuaren lizitazioaren tipoa izan beharko du gutxienez. (275.503,79 euro).

G.- GAITASUN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA

Azken 5 urteotan egindako obren zerrenda, izan kontratuari dagokion sailkapen-talde edo -azpitalde bereko obrak; betiere exekuzio handieneko urtean metatutako urteko zenbatekoa kontratuaren urteko batez besteko zenbatekoaren % 70 bada gutxienez.

BALIABIDEEN ADSKRIPZIOA

- Obra-arduradun bat, gutxienez 5 urteko esperientzia duena antzeko obretan.
- Obraburu bat, gutxienez ingeniari teknikoaren titulua eta 3 urteko esperientzia duena antzeko obretan.

☒ Enpresa sortu berrien gaitasun teknikoa:

Halako kasuetan, gaitasuna egiaztatzeke ez da esperientzia kontuan hartuko. Bai, gainerako eskakizunak.

LANBIDE-GAIKUNTZA

Ez dagokio

ENPRESA-SAILKAPENA

Eskatutako kaudimenaren ordezkari honako sailkapen honek balio izango du:

E taldea, **1** azpitaldea, **2** kategoria

H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

1.- 1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena.

2.- 2. gutun-azala: Balio-judizioen mende dauden irizpideei buruzko dokumentazioa.

3.- 3. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzeko irizpideei buruzko dokumentazioa.

BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

a) Memoria teknikoa eta exekuzio-metodologia (25 puntu)

Justifikazio- eta azalpen-memoria, lizitatzailerak nola obrei buruz hala horiek egiteko eremu fisikoaren gainean duen ezagutza ebaluatuko duena, bai eta horiek gauzatzeko edo proposaturiko soluzioari ekiteko modu teknikoa ere, teknologia xehatuta.

- Proiektuaren analisia (25 puntuetatik 10)
Lizitatzailerak proiektuaren eta proiektua exekutatzekeko kondizioen azterketa bat egingo du, eta proiektuaren dokumentazioari buruzko ondorioen zerrenda bat ere eratu beharko du, proiektuaren ezagutza-maila adierazita (dokumentazioan detektatutako kontraesanak, neurketak eta aurrekontua egiaztatzea, etab.). Horrez gainera, haren garapenean eragina izan lezaketen kanpoko baldintzatzaileen azterketa baloratuko da, baita lizitatzailerak kontraturako garrantzitsutzat jotako beste edozein inguruabar ere.
- Obra-exekuzioaren azterketa (25 puntuetatik 15)

BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Obran aurreikusitako jarduketa nagusietako bakoitzean, beharrezko eraikuntza-prozesuak aztertuko dira, jarduketa bakoitza gauzatzean gainditu beharreko zailtasunak identifikatzeaz gainera. Horretarako proposatutako metodoak eta bitartekoak ere zehaztu egingo dira. Xehetasunez helduko zaie honako hauei, gutxienez:

- Ataza bakoitzaren berezitasunak eta kanpo-baldintzatzaileak.
- Hodia zangan instalatzea: eustea, eskora-oholtzak, etab.
- Ukitutako bideak eta zerbitzuak berrezartzea.

b) Obrarako jarriko diren bitartekoak eta lanen programazioa (21 puntu)

- Obran erabilgarri dauden bitartekoak (21 puntuetatik 16)
 - Giza bitartekoak (6 puntu) → Obrarako proposatutako antolamenduaren organigrama eta deskribapen funtzionala aurkeztuko dira, obrari esleituko zaion ekipoa eta ekipoen kualifikazioa eta esperientzia adierazita.

ABEEen kasuan, argi eta garbi zehaztu beharko da eginkizunen banaketa enpresa parte-hartzaileen artean. Langileek esperientzia izan beharko dute antzeko obretan; bereziki, obraburuak gutxienez 3 urteko esperientzia izan beharko du antzeko obretan.

- Ekipoak eta makineria (5 puntu) → Proposatutako ekipoen zerrenda xehatuko da, horien kopurua eta dimentsionamendua zehazteaz gainera eskulanari eta makineriari dagokionez, bai eta horien jabetza eta obran erabiltzeko konpromisoak eta lan-programan aurreikusitako errendimenduak ere, ondo funtsatuta betiere.
- Materialak eta mekanismoak (5 puntu) → Laburpen-taula bat aurkeztuko da obran hornitu beharreko materialen eta mekanismoen –batik bat, obrarako funts-funtsezkoak diren– zerrendarekin, marka eta eredia zehaztuta. Horien zehaztapen teknikoak eta hornidura-konpromisoa eranskin independente batean erantsiko dira; «Materialen eta mekanismoen zerrenda» titulua izan beharko du eranskin horrek, eta ez da zenbatuko gehieneko orri kopururako.

Lizitatzailerak lanen zati bat hirugarrenekin itundu beharra aurreikusten badu, horien izena, erreferentziak eta aurrekontu osoan izango duten ehunekoa adierazi beharko ditu, konpromiso-gutunez gainera, bai eta enpresa-profila edo sailkapena ere.

- Obraren plangintza orokorra eta lan-programa (21 puntuetatik 5)

Eskaintzak lanen programa bat barne hartuko du, obrak garatzeko egiten den planteamendu orokorrarekin, obraren kokapena kontuan izanik; halaber, horiek exekutatzeko proposatutako bitartekoekin koherentea izan beharko du.

EZ ZAIO PUNTURIK EMANGO EXEKUZIO-EPEA MURRIZTEARI.

c) Ingurumen- eta gizarte-irizpideak (4 puntu)

Obran garatu beharreko prozedurak eta baliabideak proposatzea, obraren ezaugarrietara eta berezitasunetara egokituta. Trafikoari ahalik eta kalte gutxien eragiteko neurriak baloratuko dira, baita lanak egin bitartean ingurumen-inpaktuak minimizatzeko neurriak ere.

Eskaintzaileak proposatutako ingurumen-babeserako neurriak baloratuko egingo dira, baldin eta proiektuaren ingurumen-azterketan jasotakoak baino hobeak badira.

Dokumentazio teknikoaren edukia korrelatiboki zenbaituko da, eta 20 orrialde izan beharko ditu gehienez, honela banatuta (gehienez):



BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

- 12 orrialde memoria teknikorako.
- 6 orrialde «Obran erabilgarri dauden bitartekoak eta lan-programa» atalerako.
- 2 orrialde ingurumen- eta gizarte-neurrietarako.

Honako ezaugarri hauekin:

- DIN-A4 tamaina.
- Alde batean.
- Letra mota eta letraren gutxieneko tamaina: ARIAL, 11 puntu.
- Gutxieneko lerroarte: 1,5 puntu.
- Gutxieneko goiko eta azpiko marjina: 2,5 cm.
- Gutxieneko ezkerreko eta eskuineko marjina: 2 cm.

Gehieneko orrialde kopurua zenbatzeko, kanpoan geratuko dira azala, aurkibidea eta kontrazala.

Salbuespen gisa, DIN-A2 eta DIN-A3 orriak sartu ahal izango dira, aurkezteko formatu horiek eskatzen dituen dokumentaziorako (organigrama, lan-programa, etab.). Orrialdeen zenbaketan ez dira kontuan hartuko obrari esleitutako ekipoaren kualifikazio eta esperientziaren egiaztagiria, proposatutako makineriaren edo bitartekoen fitxa teknikoak, hornitzaileen edo azpikontratisten konpromisoak eta proposatutako instalazioen planoak. Dokumentazio hori memoriaren eranskin gisa gehitu behar da, modu independentean.

Atal bakoitzerako ezarritako orrialdeak baino gehiago sartuz gero, balorazio teknikoan lehen orrialdeak bakarrik hartuko dira kontuan adierazitako gehienekora iritsi arte. Lerroarte, letra mota, letra-tamaina, marjinak eta abar errespetatzen ez badira, irizpide bera aplikatuko zaie adierazitako gehienekoa gainditzen duten orrialdeei, emandako dokumentazioari ezaugarri horiek aplikatu ondoren.

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

Proposamen ekonomikoa, lizitatzailerak edo haren ordezkariak sinatua, l. eranskin gisa bildutako ereduaren arabera idatzia ezinbestean, eskaintako prezioan zerga guztiak barne hartuta daudela, BEZa izan ezik.

Proposamen ekonomikoa honako hauekin osatuko da:

a) Eskaintako prezio unitarioen zerrenda

- Proiektua osatzen duten unitate guztien exekuzio materialaren prezio unitarioen zerrenda, letraz eta zenbakiz idatzita.

Unitatearen zuzeneko kostuari % 7 gehituz lortuko dira prezio horiek, zeharkako kostu gisa.

Lehiatzaileak abonatu osoko partida altxatuak berak erabakitako prezioan eskainiko ditu. Justifikatu beharreko oroharreko partidak egonez gero (segurtasunari eta osasunari buruzko kapitulua barne hartuta), lizitazio-proiektuaren aurrekontuan ageri diren zenbateko berak eskainiko ditu horietarako.

Lehiatzaileak konpromisoa hartuko du, adjudikaziodun izanez gero, Prezioen 2. Taula eratzeke, bere eskaintzan agertzen den prezio unitarioen zerrendan oinarrituta, dokumentu horren helburuetarako egokia den egitura batekin. Azkenik, obren zuzendaritzari aurkeztuko zaio, Zuinketaren Egiaztapenaren Akta sinatu eta lehen hilabetea amaitu baino lehen.



AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

- Aurkeztutako prezio unitarioak kalkulatzeko erabilitako eskulanen, makinen eta materialen oinarritzko prezio unitarioen zerrenda.

b) Eskaintako kontratuaren aurrekontua

- Exekuzio materialerako aurrekontua, lehiatzaileak eskaintako prezio unitarioak lizitazio-proiektuaren neurketei aplikatzean oinarrituta egina. Aurrekontu hori PRESTO programan gauzatu beharko da, euskarri magnetikoko bertsio batez lagunduta. BC3 formatuan aurkeztea onargarria izango da.
- Obra-exekuziorako aurrekontua, exekuzio materialerako aurrekontuari «Gastu Orokorrak eta Onura Industrialak» kontzeptua (% 19) aplikatzearen ondoriozkoa.

I.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA

- 1.- Eskaintzak aurkezteko epea: Kontratatzailearen profilean adierazitakoa
 - 2.- Eskaintzak aurkezteko tokia (AKPAren 13. klausulan ezarritakoa ez beste bat bada soilik):
 - 3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztu behar dira ☒ BAI ☐ EZ
- Eskaintza elektronikoki aurkezteko plataforma elektronikoen helbidea:
<https://contratacion.consorciodeaguas.eus/site/3?language=eu>

J.- KONTRATAZIO-MAHAIA/ADITUEN BATZORDEA.

☒ Kontratazio-mahaia

Presidenteak:
Ekaitz Mentxaka Corral.

Kideak (titularrak):
Mikel Magunazelaia Pinaga.
Xabier Orue Moro.
Itziar Zarate Urrutia.
Gerardo Latorre Pedret.
Jose Manuel Pereda Renobales.

Idazkaria (titularra):
Gerardo Latorre Pedret.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

1.- Adjudikazio-irizpideak:

Lehiaketa adjudikatzeko oinarri, baloratu beharreko alderdi gisa, erabili beharreko irizpideak, hauek dira:

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEAK: 50 PUNTU

Irizpide honetan 50 puntu emango dira gehienez.

Eskaintza ekonomikoak eskaintza bakoitzaren baja-ehunekoarekiko (Bi) proportzioan baloratuko dira, honela:

Bmax 50 puntu
(Bmax + BBM) / 2 48 puntu



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

BBM.....	47 puntu
0,8 x BBM	46 puntu
0,6 x BBM	44 puntu
Lizitazio-aurrekontua1	0 puntu

Non:

- Bi: Eskaintzaren baja-ehunekoa, hau da, lizitazio-aurrekontuaren eta eskaintza-zenbatekoaren arteko kendura zati lizitazio-aurrekontuaz egitean ateratzen dena, ehunekotan adierazita.
- Bmax: Gehieneko bajaren ehunekoa, eskaintzarik ekonomikoenari dagokiona
- BBM: Batez besteko bajaren ehunekoa, lizitatzailerik bakoitzaren baja-ehunekoen batezbesteko aritmetikoaren emaitza

Onartutako gainerako eskaintzen puntuazioa aterako da aurretik zehaztutako puntu-banaketa linealki interpolatuta.

Hori horrela, Bi baja bakoitzari esleitutako Pi puntuazioa honako hau da:

Baldin eta $0 < Bi \leq 0,6 \times BBM$

$$Pi = \frac{Bi}{0,6 \times BBM} \times 44$$

Baldin eta $0,6 \times BBM < Bi \leq 0,8 \times BBM$

$$Pi = 44 + \frac{(Bi - 0,6 \times BBM)}{0,2 \times BBM} \times 2$$

Baldin eta $0,8 \times BBM < Bi \leq BBM$

$$Pi = 46 + \frac{(Bi - 0,8 \times BBM)}{0,2 \times BBM}$$

Baldin eta $BBM < Bi \leq (BBM + Bmax) / 2$

$$Pi = 47 + \frac{(Bi - BBM)}{(Bmax - BBM)} \times 2$$

Baldin eta $(BBM + Bmax) / 2 < Bi \leq Bmax$

$$Pi = 48 + \frac{(2 \times Bi - BBM - Bmax)}{(Bmax - BBM)} \times 2$$

BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEAK: 50 PUNTU

- Memoria teknikoa eta exekutatzeko metodologia..... 0-25 puntu
- Obrarako jarriko diren bitartekoak 0-21 puntu
- Ingurumen- eta gizarte-irizpideak 0-4 puntu



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

2.- Berdinketa hausteko irizpideak:

Eskaintza baten baino gehiagoren artean berdinketa jazoz gero, behean adierazitako irizpide sozialak aplikatuko dira berdinketa ebazteko, adierazitako hurrenkeran, eskaintzak aurkezteko epea amaitzean lizitatzailerak duen egoera kontuan izanik:

- a) Enpresetako plantilletatik desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketako egoeran dauden langileen ehuneko handiena duena; berdinketa gertatuz gero, plantillan langile desgaitu gehien duena edo plantillan inklusio-neurrien bidez langile gehien duena.
- b) Plantillan aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duen enpresa.
- c) Plantillan emakume enplegatuen ehuneko handiena duen enpresa.
- d) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa ebatzi ez bada.

3.- Eskaintza anormalki txikitzat jotzeko irizpideak:

Eskaintza anormalki txikitzat joko da honako egoera hauetako batean badago:

- Baldin eta, lizitatzailerak bakarrik egonik, lizitazioaren oinarritzko aurrekontua baino portzentajezko 25 unitate txikiagoa bada.
- Bi lizitatzailerak egonik, beste eskaintza baino portzentajezko 20 unitate txikiagoa dena.
- Hiru lizitatzailerak egonik, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Nolanahi ere, zenbatekorik handieneko eskaintza ez da kontuan hartuko batezbestekoa zenbatzeko, baldin eta batezbesteko bakarrik baino portzentajezko 10 unitate handiagoa bada, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Dena den, neurrigabetzat joko da portzentajezko 25 unitatetik gorako baja.
- Lau lizitatzailerak edo gehiago badaude, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Hala ere, haietako eskaintza batzuk batezbestekoa baino portzentajezko 10 unitate baino handiagoak badira, egoera horretan ez dauden eskaintzekin bakarrik egingo da batezbestekoa, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Nolanahi ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batezbesteko berria zenbatekorik txikieneko hiru eskaintzen gainean kalkulatu da.

Talde bereko enpresek eskaintzak aurkezten badituzte, eskaintzarik txikiena baino ez da kontuan hartuko anormaltasun-presuntzioan dauden eskaintzak identifikatzeko araubidea aplikatzeko, alde batera utzita eskaintza bakarrik edo taldetik kanpoko enpresa batekin edo batzuekin batera, aldi baterako elkarturik, aurkeztu duten.

4.- Lizitatzaileri, hautapen-prozesua jarraitzeko, eskatutako gutxieneko puntuazio-atalasea: Baztertzeko arrazoia izango da eskaintzaren balorazio teknikoan **25 puntu** gutxienez ez lortzea.

L.- KONTRATUA EXEKUTATZEKO KONDIZIO BEREZIAK

PTPAn zehaztutakoak.

M.- ZIGOR ZEHATZAK

PTPAn adierazitako kasuak eta ekintzak.



N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Arrisku profesionalengatiko erantzukizuneko aseguru dagoelako egiaztagiria.

N.- KONTRATUA ALDATZEA

Ez-aplikagarria.

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

☒ Hasieran aurkezteko betebeharra

☐ Azpikontratazioaren mugak

P.- SUBROGAZIOA

Ez

Q.- ERREKURTZO BEREZIA

☐ BAI

☒ EZ

BETEBEHARRAK KONTRATUA EXEKUTATU BITARTEAN

Obren zuzendaritza:

Partzuergoaren barnean eskumena duten zerbitzuek kontrolatu eta ikuskatuko dituzte lanak, Obra Zuzendaritzaren bitartez, zeinak ikuskatu, egiaztatu eta zaindu egingo baitu kontratatutako obra behar bezala gauzatzen dela, Administrazio Klausula Orokorren Agiriko 4. eta 24. klausuletan xedatutakoari jarraituz.

Obraren seinaleak eta kartelak:

Kontratistak nahitaez osatu behar ditu Proiektuaren Laneko Segurtasun eta Osasun Azterlanean adierazitako elementuak, honako hauek adierazteko behar diren seinaleei dagokienez: obrarako sarbidea, zirkulazioa lanetarako eremuan, lanak exekutatzearen ondoriozko balizko arrisku-puntuak, bai eremu horretan bertan, bai haren mugetan eta inguruetan, eta Administrazio Klausula Orokorren Agiriko 23. klausulan aipatzen diren aginduak bete behar ditu.

Baimenak eta lizentziak

Adjudikaziodunak udal-baimen guztiak kudeatu beharko ditu, obrarako udal-lizentzia izan ezik, aldamioak, pasabideak, hesiak jartzeko, hartuneetarako galtzadak irekitzeko, eta abarretarako, eta haren kontura izango dira, oso-osorik, nola tasak, hala horien kudeaketak dakartzan gastuak. Udalak obretarako udal-lizentzia gisa fakturatutako zenbatekoa soilik geratzen da aurreko gastutik kanpo, hala badagokio.

Era berean, bere gain hartuko ditu beste erakunde batzuen –hala nola Foru Aldundiaren– baimenak izapidetzeari dagozkion gastu guztiak –adibidez, abalak–, bere eskumenerako arloetan jazotako gurutzetak eta/edo jarduketak direla-eta.

KONTRATISTAREN ORDEZKARIA

Kontratista adjudikaziodunak ordezkari bat atxikiko dio kontratuari; hura kontratistaren plantillan sartuta egongo da eta kontratu-zuzendaritzarekiko solaskidea eta lanen arduradun nagusia izango da.



BETEBEHARRAK KONTRATUA EXEKUTATU BITARTEAN

Ordezkarik horrek eta adjudikaziodunaren agindupean dauden langileek ez dute Partzuergoarekin harreman juridikorik izango, ez eta lan-harremanik edo bestelakorik ere, ez kontratua indarrean den bitartean, ez kontratuaren amaieran.